

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko irailaren 1a

Egunkaria

Gehigarri honetan




Xareta • Urdazubi, Zugarramurdi eta Saran hainbat hobekuntza egin da berriki
David Ilundain • «Film laburra grabatzea latza da, denbora askoan zorretan zarelako»



Monasterioen bidea

• OSKAR MONTERO



Uda bukatu dela dirudi, baina oraindik beste hiru aste falta dira udazkena heltzeko. Hortaz, oraindik badago denbora turistarena egiteko. Monasterioak bisitatzen igaro dezakegu denbora hori. Nafarroa monasterio lurraldea izan zen garai batean. Erdi Aroan berebiziko indarra eta garrantzia izan zuten; Nafarroako bideak monasterio batetik bestera egiten ziren. Orain, sei monasterio besterik ez ditugu osorik, baina hagitx ederrak dira, bisitatu beharrekoak.



Xareta • Garatzen ari den ingurua

Urdazubin, Zugarramurdin eta Saran hainbat hobekuntza egin dira berriki

Urdazubiko Udalak bisita gidatuak antolatu ditu herrian, Zugarramurdiko errepidea konpondu dute eta Saran Ortillopitze euskal etxea ireki dute, besteak beste. Hori guztia ikusita, argi dago inguruan mugimendua badela.



Dantxarinetik Lapitxuri benta, Xareta inguruetan azkenaldian eraiki dituzten bi benta handietako bat.
• RAKEL GOÑI

A SPALDI HASI ZIREN XARETAKO ingurua (Urdazubi, Zugarramurdi eta Sara) berpizten. Proiekturik erakargarriena kontrabandisten bidea izan zen, zeinak hiru herri horietako kobazuloak batzen zituen. Bisitarien kopurua handitu zela ikusirik, alkateek ekimen horiek aurrera jarraitu behar zela ikusi zuten. Uda honetan uzta jasotzen hasi dira.

Urdazubitik hasita, iaz ireki zuten berriztatutako errota zaharra. Oraindik errotan irina eta artoa ehotzen ikus dezakete bisitarriek. 1971 arte egon zen martxan. Baina herrian duten proiekturik erakargarriena IV. mendeko monasterioaren moldakuntza da. 1830. urtetik ez da inolako konponketarik izan

monasterioan, lehendik ere nahiko kaltetua zena, berri historian bi sute handi jasan baititu. Oraingoz, alkatearen ekimen bati esker, monasterioaren klaustroa moldatu dute, turistik erakartzeko eta inguruko bertako altxor arkitektonikoak erakusteko. Uda honetan, bisita gidatu batean, bai

errota bai eta klaustroa ere ikus daitezke.

Bi benta handi Dantxarinetik

Ez da ukatzen ahal Xareta inguruak aldaketa handiak izaten ari direla. Horren adibide, Dantxarinetik Urdazubiko auzoan eraiki dituzten bi benta

edo saltoki erraldoi dira. Gutxi gorabehera 50 lanpostu sortu dira zuzenean Dantxarinetik eta askoz gehiago zeharka. Oraingoz aitzinetik zeuden benta txikiek erosle gutxiago sumatu dituzte, baina, bestalde, jantoki eta tabernetan lana ugari omen da.

Hori guztia gutxi balitz, Dantxarinetik Zugarramurdira doan errepidea berriki moldatu dute. Garai bateko errepide estu eta bihurtuz beterikoa ahaztu dute zugarramurdiarrak. Lau kilometro besterik ez ziren, baina Gobernuak ez zuen laguntzarik ematen. Orain herritarrek zein bisitarrak *autobide* bat eraiki dietela diote. Lanak egiteko Nafarroako Gobernuak 256 milioi pezetako aurrekontua hartu du bere gain (10,24 milioi libera).

Azkenik, Xareta iparralde ahaztu gabe, Saran museo berri bat ireki dute, Euskal Etxearen Museoa. Ortillopitze izeneko baserria, XVI. Mendekoa, erabat konpondu dute.

→ Rakel Goñi

Berriozar •

Aukera berdina jaietan

Herriko bestetan emakumeek, gizonen gisara, ongi pasa dezaten nahi du Udalak

K ANPAINA HONEN BIDEZ, UDALAK herritar guztiak kontzientziatu nahi ditu herriko bestetan gizonen gisara emakumeek disfrutatzen auzera berdina dituztela. Etxeko lanak banatu behar direla eta beharra duten pertsonen zaintza familiako kide guztien artean egin behar dela ere zabaldu nahi du kanpainak.

Asteartean hasi ziren bestak, eta, kanpaina dela eta, kartelak eta pegatinak banatuko dira irauten duten bitartean. Bertan Mikel Poza Undiano berriozartarrak eginiko marrazki bat ageri da: Bi emakume ageri dira; bata dantzan eta kantuan; bestea ere kantuan ageri da, baina, aldi berean, etxea garbitzen dihardu. Ez da berdina abestea... edo abestea leloa ere azaltzen da Pozaren marrazkian.

Halaber, bihar, 18:00etan, T'Omblijo Teatro taldeak *Klowntacuentos: Finiste-*

re y Terranova antzezlan taularatuko du San Esteban plazan, non sexuen arteko ezberdintasunak eragiten dituzten arazoak azaltzen diren.

Jaietako kanpaina hau urte barruan egiten diren beste jarduerak batzuen osagarri izatea nahi dute. Adibidez, aurten sukaldaritzako ikastaro mistoak egin zituzten, eta arrakasta handia izan zuten gizonen artean. Horregatik, berriz antolatzeko asmoa dute.

Bestalde, Emakumearen Sailak iragarri du irailean Lege Laguntzarako Zerbitzua berriz abiatuko duela. Zerbitzu horretan espezialistek hainbat gairen inguruko aholkuak ematen dituzte: gurasoen eta seme-

alaben arteko harremanak, erregistro zibila, dibortzioak, ezkontzaren baliogabetasuna, tratu txarrak...

→ Daniel Urrutia



EN FIESTAS PARTICIPA EN IGUALDAD

Atarrabia •

Atarrabiarren eguna

Etxe Beltza elkarteak lokal berria inauguratuko du bihar

B I EGUNEKO JAIA EGINEN DUTE ASTEBURUAN atarrabiarrek, eta, horretarako, hagitx egitarau zabala prestatu dute. Larunbatean, 11:00etan, bizikleta lasterketa egingen dute. Ondoren, otordua banatuko dute. Arratsaldean, 16:30ean, pilota partidak izanen dira frontoian. Gero, 18:00etan, Armonia Navarra tadeak jotak kantatuko ditu Udaletxeko enparantzan. Iluntzeko 20:00etan herriko elkartearen arteko herri kirol lehiaketa egingen dute. Eguna bukatzeko, 21:30ean, Etxe Beltza elkartearen lokal berriak inauguratuko dituzte. Etxe Beltzakoek 20. urtemuga ospatzen dute, eta «ilusioz beteriko berrikuntzan murgilduta» daude.

Igandekoa are egun handiagoa izanen da. Txistulariek eta Mikelats dantza taldeak diana joko dute, goizeko hamarretan. Ordu berean, Zintzarri eta Oria txarangak eta Ata-

rrabiako Kilikiak kalejira abiatuko dira.

Goiz guzian Udaletxeko plazan hamabost bat eskulangileren lanen erakusketa izanen da, baita 1999ko argazki rallyaren erakusketa ere. 11:00etan, Idoskiako dantzarien emanaldia izanen da Antso VI.a Jakitunaren plazan; Gure Txolarte elkarteak hamaiketako emanen du; eta Atarrabiako karriketatik ibiliko dira hankapaluak, malabaristak, perkusio taldea, En Klave musika eskolako trikitilariak eta Naspexak taldeko joaldunak. 12:30ean, erraldoi eta gaiteroen emanaldia izanen da, baita Paz de Zigandako dantzariena ere. 13:30ean, herri kirolak egingen dituzte Udaletxeko plazan. Herri bazkaria izanen da 14:45ean, Udaletxeko plazan; eta egun handi honi bukaera emateko, 18:00etan dantzaldia izanen da Jator taldearekin.



→ Asier Azpilikueta

Lizarra • Karrikak koloreztatzen

Udalak herriko karrikak koloreztatzeko lehiaketa bultzatu du

Urtez urte hiriko horma zaharrak kolore alaiez margotzen dira. Ekimena Lizarrako Udaleko Gazteria Batzordearena izan zen, eta aurten bederatzigarren aldiz eginen dute lehiaketa berezi hori.



Elbeteko elizan XVI. mendeko estilo platereskoko Ama Birjina aurkitu berri dute.
● RAKEL GOÑI

1992. URTEAN LIZARRA-ko Udaleko Gazteria Batzordeari hiriko hormak apaintzeko lehiaketa prestatzea bururatu zitzaion. Harrera ona izan zuen, eta, hala, hiria beste itxura bat hartzen joan da pixkanaka-pixkanaka. Gauzak horrela, ilun, zikin eta zahar zeuden bazterrak kolore alaiez jantzi dira, eta lehen lohituak ziren txokoan bertzelako irudi bat ageri dute gaur egun. Lehen pareta soil bat baino ez zena egun artelan baten euskarri bihurtu da.

Bederatzi urte hauetan hainbat marrakzi pintatu dituzte Lizarrako karriketan. Adibidez, horma batean ekiloreak ikus daitezke, eta beste batean paisaia berdea.

Aurtengo lehiaketa Elvira Roitegi 22 urtekoak irabazi du. Brotxa, eskailera eta margo ontziak eskuan hartuta Karlos II.a Gaiztoaren karrikara zuzentzen da egunero. Joan den astean hasi zen, eta, batez bertze, egunean sei

ordu ematen ditu pintatzen, goiz eta arratsalde. Karrika horretatik pasatzen diren zenbaitek harriturik begiratzeko diote, baina gehienek badakite zertan ari den. «Jendea begira gelditzen da. Gazteek ez dute ezer erraten, baina helduek denetarik erraten dute, eta animoak ere ematen dizkirate», esan digu Elvirak.

Elvira Roitegi Larrionen jaio zen, eta egun Arte Ederak ikasten ari da. Txikitatik

izan du margotzeko zaletasuna. «Ilustrazioa asko gustatzen zait, umeen ipuinak margotzea. Erdi Aroko maitagarriek, sorginek, iratxoek eta antzekoek liluraturik naukate, eta horren inguruko zerbait egin nahi dut». Dagoeneko ume koskorrei zuzendutako liburuxka bat egin du. *Animaletas* du izena, eta jolas baten bidez haurrek hizkiak ezagutzea da xedea.

Elvirarentzat aurreneko sari garrantzitsua da hau, eta pozik dago oso. Udalak 300.000 pezetako diru-saria eman dio, eta bertze 175.000 pezeta materiala erosteko. Dena den, pareta bertze urteetan baino handiagoa dela kexatu da: 88 metroko zabalera eta 3,3ko altuera du. «Pareta hau izugarria da. Lau egunetan 40 litro margo erabili ditut, eta orotara 100 litro baino gehiago erabiliko ditudala uste dut. Gainera, irailaren bukaera arte daukat amaitzeko, eta agian laguntza behar izanen dut». Proposamena hortxe dago.

→ Kristina Berasain

Zangoza • Turismoa azkartzeko

Irailaren bigarren hamabostaldian Partzuergo Turistikoa sortuko dute Zangoza aldean

Erdialdeko, Pirinioetako eta Erriberako gune turistikoaren erdian dago Zangozako merindadea. Kasik ez zen promozionatzen. Horri aurre egiteko partzuergoa sortuko dute irailean.

PARTZUERGO BERRIA SORTzeko ekimenaren buru Garalur da, eta bere atzetik ditu merkatari eta ostalarien elkarteak eta inguruko hamabi udalak.

Garalurreko Mendialdeko Mahaiko koordinatzaile Eva Jimenok erran duenez, «erakunde berri hau sortuta, udalen eta interes pribatuen arteko koordinazio falta bukatuko da».

Turismoa Bultzatzeko Planak dioenez, partzuergoak eginen duen lehenbiziko gauza inguruko baliabide turistikoaren zerrendatzea izanen da,

erakarpene gehien izan dezaketen horietan indarra eginez. «Ondoren, bertakoak sentsibilizatzen saiatuko da, bertakoek hartuko baitituzte turistak», erran du Jimenok. «Horretarako, formazio programak eskaini eta kalitate planak bultzatuko dira». Gutinaka ekimenak eta azpiegitura osatzea espero dute partzuergoaren bultzatzaileek. «Turismo bidezko landa garapena epe luzearako da», dio Jimenok.

Zangoza herriak, Xabierko



Zangoza, Leire eta Xabierrek osatzen duten hiruki turistikoa profitatu nahi dute.
● EGUNKARIA

gatzeluak eta Leireko monasterioak osatzen duten hiruki turistikoak bisitari anitz erakartzen ditu. «Inguru hau iragan tokia da, jende askok bi-

sitatzen ditu. Jende jario hori profitatu egin behar dugu», komentatu du Eva Jimenok. Toki horiez landara, inguruak gauza asko ditu erakusteko: Galipentzuko Erdi Aroko herribarrena; Oibar, Caseda, Sada, Eslaba edo Lergako eliza eta ermitak; Ledeko hiri erromatarra; Esako *Pirinioetako itsasoa*; edota Petilla de Aragon.

Trabaz asmorik gabe

Erakunde berriak zer-nolako izaera juridikoa hartuko duen ez dago garbi oraindik. Hala ere, irabazasmorik gabeko elkarte izanen da ziurrenik. Garalur eta Bertiz, Plazaola eta Pirinioetako partzuergoekin batera, Mendialdeko Mahaian izanen da elkarte berria.

→ Daniel Urrutia



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Lovecraft TB


«Azken lerro hartan ikusi nuena oso-oso fuertea izan zen», esan zidan adiskideak. Tabernan jende gutxi, astelehen arrunt bateko gaueko ordu txikietan. Bera, etengabe, rona hartzen ari zen. Aurretik kontatua zuen nola joan zen Telebistako estudioetara, non gaueko saio alai eta erotiko-festibo bat grabatu behar zuten. Deskribatuak zituen jada bidaia eta harrera, estudioan sarrera eta foku eta kableen korapiloak. Orain jendeaz ari zen, bera bezalako jendeaz: bertan bildu ziren ikusleek. Haiek baitziren, azken finean, bere bidaiaren jomuga.

«Begira, Xabier —esaten zidan—, ez dakit zu, baina ni beti irrikan egon naiz gauza honekin. Etxetik ikusten nituen saioak eta, hasieran, ikusleak txaloka ateratzen zituztenean, lehendabiziko lerroez ohartzen nintzen bakarrik. Haiek emakumeak, haiek!, eta gizonak! Ederrak! Aitortu behar dut askotan neska ilehori gonamotz batekin fijatu eta kameraz aldatu arte ez nintzela besteaz ohartzen ere! Baina denbora joan ahala bigarren lerroan eserazten dituztenak ikusi nituen eta, hara!, lehenbiziko lerrokoak baino askoz ere itsusiagoak eta kutreagoak ziren! Benetan, Xabi, benetan. Bigarren lerroan amona zaharkituak eta nerabe bibotedunak zeuden. Eta horra sortu zitzaizdan galdera: hau horrela bada, hau da, lerro bakoitzeko gauza horrenbeste okertzen bada, zer egongo da ikusleen azken lerroan? Beno ba... eserlekuak banatzen hasi zirenean ni bigarren lerroan jarri ninduten. Burua bueltatu baina etxetik bezain urrun gelditzen zitzaizkidan azken lerroak. Atsedendaldian, beraz, ez tula nuelako itxurak egiten, nire lekutik altxatu eta kanpora atera behar nuela irudikatu nuen. Gero fokuen atzetik sartu eta atzeko partetik azken lerroen azpiraino ailegatu nintzen. Iluntasun hartan, nire gainean hiru bat metrora azken lerrokoen bizkarrak ikusten nituen. Txistu jo nuen. Nire gainean azken lerrokoek bueltatu eta beheantze begiratu zuten...». Adiskidearen aurpegia ikara handi batek desitxuratzen zuen. Ahoa irekia zuen, han ikusitakoa azaldu nahian. Baina ez zen beste hitzik atera. Zerraldo erori eta, gerora baieztatu zen bezala, lurra ukitu baino lehenago hilik zegoen. Aholku bat bukatzeko: segi lehendabiziko lerroari so, sakontzea latza eta arriskutsua izan daiteke-eta. ●

Monasterio lurraldea

Nafarroan gaur egun sei monasterio gelditzen dira osorik

OSKAR MONTERO



Fitero

Monasterio zistertarra. XII. mendearen erdian Gaskoinako Scala Dei-ko 12 fraide zistertarrek komunitate bat osatu zuten Fiteroko lurretan. 1835an abateak karlisten alde egin zuen eta bere jarraitzaileekin batera monasterioa betiko utzi behar izan zuen. Nabarmentzeko atalak: eliza zistertarra eta klaustro platereskoa (XVI). Ez da monasterio bezala erabiltzen. Fiterokoa egun parrokia da eta berez monasterio zena mila gauzetan dago bilakaturik (mojen egoitza, zinetoki, frontoia).

Nafarroa monasterio lurraldea izan zen garai batean. Erdi Aroan berebiziko indarra eta garrantzia izan zuten. Egundak, ordea, sei monasterio besterik ez ditugu osorik, eta soilik bertako hiru erabiltzen dira monasterio bezala. Harri pila direla erran daiteke, baina hagitz ederra, bisitatu beharrekoak.

IRATXE, IRANTZU, FITERO, LEIRE, La Oliva eta Tulebras. Horiexek dira Nafarroan osorik geratzen diren monasterioak. Baina Nafarroan monasterio gehiago izan ziren, eta horien hondakinak ikus daitezke. «Batzuk aipatzearen, Aberin eta Zizur Txikikoa, San Juan ordenakoa, eta horien arrastoren bat dago», erran du Jesus Omeñakak, Nafarroako monasterioetan aditua bera. «Bietan eliza osorik dago. Baina monasteriotik guti gelditzen da. Vadoluengoan ere eliza dago bakarririk».

Duela guti Uharteko Arakilgo Zamartze monasterioan apaizgaitzia erakitze proiektua aurkeztu zuen Elizak. «Zamartze lauzpabost laguneko monasterio txikia zen. Aralar bere menpean zegoen», esplikatu du Omeñakak. «Baina orain soilik eliza erromanikoa gelditzen da. Nahiko ongi dago, nahiz eta berritzea komeni zaion. Ondoko etxean egoitza bat eginen da, udako mintegi moduan. Horrelako zerbait, baina ez monasterioa».

Hiru monasterio erabiltzen dira

Monasterio bezala hiru erabiltzen dira: Leirekoa, La Olibakoa eta Tulebraskoa. Irantzuko eta Iratxe osorik daude, baina ez dira monasterio bezala erabiltzen. Eta Fiteron eliza eta

Nafarroako monasterioak



klaustroa gorde dira, baina berez monasterio zena makina bat eraikinetan banaturik dago.

Carmelo Ziardiak Iratxe monasterioko zaindari lana egin du azken 35 urteetan. Ziardiarendako eliza da atalik ederrena. «Beste guziaz, nik bulegoa dudana tokia, unibertsitatea zenekoa, adreiluzko eraikintzarra

da», esan digu. Klaustroa ere ederra du Iratxe. Iratxe monasterioaren Lagunak elkarteko kide da Ziardia. «San Beremundoren figura goraitzen saiatzen gara», dio. Beremundok Iratxe fundatu zuen XII. mendean erromen lehen ospitalea. Iratxe ere Nafarroako lehen unibertsitatea finkatu zen. «Egun monasterioa ez da deustarako erabiltzen», kexatu du Ziardia. «Monasterioa berritu beharko litzateke, eta erabilgarritasun bat eman. Horrelako eraikin bat ezin daiteke erabili gabe utzi». Laster museo eraikiko dute bertan.

Erran bezala, Leire, La Oliva eta Tulebrasko monasterioen monjeak bizi dira. «Komunitate aldetik gehien gustatzen zaidana Tulebraskoa da», dio Omeñakak. «Jatorrena da. Mojak oso aktiboak dira. Leireko monjeek ere oso fraide bizitza ona daramate. Liburutegi ona dute eta kultur ekintza garrantzitsuak egiten dituzte. Azkenik, La Olivako zistertarrek ez dute aktibitate intelektual handirik egiten, baina ardoa eiten dute, eta oso ona omen da. Otoitz eta baratzean lan egin, hori da egin behar da». Turistak monasterioetako harrien eusuna miretsi ahal du, barneko fraide bakoitzak beste baterako utzi beharko dugu.

→ Asier Azpilikueta

OSKAR MONTERO

Leire

Nafarroako eraikin erromaniko goiztar nagusia. Lehen aldiz 858ko agiri batean aipatzen da. Leireko abateak Iratxe apezpikuak izan ziren garai batean eta Nafarroako zenbait errege ere Leiren hilobiratu zituzten. Monasterio atalik zaharrenak lehen erromanikoko elizaren zimenterriak dira (egungo habearte gotikoren azpian). Elizaren kriptak eta burualdea 1057 urtekoak dira. Aipagarri dira, halaber, XII. mendeko lau atari eta Nafarroako erregeen hilobia. Monasterio bezala erabiltzen da; 28 monje bizi dira bertan. Enpresa batek bisita gidatuak antolatzen ditu.



OSKAR MONTERO


Iratxe



Ez dago garbi noiz sortu zen. Badirudi IX. menderako bazegoela fraide bizitza bertan. Baina VIII. mendeko horma bat dago oraindik. Nafarroako lehen unibertsitatea Iratxe izan zen. Estilo arkitektoniko asko nahasten dira Iratxe. Nabarmentzeko atalak: XII. mendeko eliza (trantsiziozko erromanikoa) eta XVI. mendeko klaustro gotiko-platereskoa. Monasterioa ez da deustarako erabiltzen. Elizan, ordea, egiten dira elizkizunak. Laster museo paratuko dute Iratxe. Monasterioan sartzea libre eta doan da.

Tulebras

Monasterio zistertarra. Penintsulan sortu zen emakumezkoen lehen komunitate zistertarra. XII. mendean edo hasi ziren eraikitzen. Nabarmentzeko atalak: eliza (XIII), klaustroa (XVI), erretaula nagusia (XVI), harrizko aldea (XIII) eta Ama Birjinaren irudia (XIV). Monasterio bezala erabiltzen da; bertako mojak klausuran bizi dira. Monasterioak bisita daitezkeen museoak du. Eliza ere bisita daiteke, monasterioa ez.



INAKE VERGARA

Irantzuko

Monasterio zistertarra. Lehen aldiz 1027ko agiri batean aipatzen da. Sortze dokumentua 1176 urtekoa da. Monjeek 1835 urtean abandonatu zuten. 1945an aita teatinoak sartu ziren. Monasterioa osorik mantentzen da. Nabarmentzeko atalak: eliza erromanikoa (XII-XIII), kalostera eta atari gotikoak. Ez da monasterio bezala erabiltzen, baina bertan bi erlijioso bizi dira. Bisita gidatuak egiteko aukera dago. Kultur objektuen denda badu.

Oliba

(Zarrakastelu) zistertarra; 1134. Monasterio zistertarra. Badirudi 1150 urte inguruan sortu zela. XIV. Mendean arte ondasun asko eta agintea izan zituen; gero gainbehera hasi zen. Eliza eta klaustroa ongi mantentzen dira, baina berez monasterioa zena 90 urtez egon zen abandonaturik eta gutika gutika hondatu egin zen. Nabarmentzeko atalak: eliza (XII) eta klaustroa (XIV-XV). Monasterio bezala erabiltzen da; 26 monje bizi dira bertan. Lehenago deituz gero, bisita gidatuak egiteko aukera dago.



OSKAR MONTERO

Joxemiel Bidador

Euskal eskolaren hasi-masiak: Iturriaga (1)

Ikasturte berri bat hastera doan honetan, hona hemen euskal eskolaren historiaurrearen pasarte interesgarri bat, Iturriaga hernaniarrak XIX. mendeko lehenbiziko erdialdean gorpuztu zuena hain zuzen ere.



Ez dakigu egiazki zeintzuk izan zitezkeen arrazoiak edo zerk bultzatu zuen gure hernaniar hau, baina zalantzarik ez dago honetan: Iturriaga hirugarren abizena dugu, ez ordea lehenbizikoa, ez eta bigarrena, Larramendik egin zuen antzera. Baten batek esan du bere lehenengo abizenaren ageriko erdaltsuak eraginda izan zitekeela, baina orduan zergatik aukeratu hirugarrena eta ez bigarrena? Aitarek deskarguan? Edo zein modutan ere, gure artean Iturriaga iragan zaigu ezagun, eta ohiturari muzin egin barik, guk ere horrela deituko dugu; bego, beraz, Iturriaga. Guztia-ekin, ez legoke sobera oso bere aikoen estratigrafia xumea egitea, hobekiro kokatzearen baizik ez bada ere.

Agustin Inazio Maria 1778ko urtarrilaren 31n sortu zen Hernanin, bataio agerietan agertzen zaigun bezala. Aita Juan Jose Pascual Iturriaga zuen, eta ama Maria Antonia Ugalde Amitezarobe. Aita Errenteriakoa zuen, eta ama, berriz, Hernanikoa; Pascual abizen errefusagarria antza Errioxa aldeko Autol herritik Errenteriarra heldu Andres aitaxiari zor zion. Ikasketak Andoaino apaizgaitegian nola Oñatiko unibertsitatean egin zituen, eta 1804. edo 1805. urteez geroztik bere sorterriko apez lanetan bagenuen. Alabaina, apez bezala egin zuen lanarengatik ez zen ezaguna bereziki, irakaskuntzan egin zuenarengatik baizik. Apeztu aitzin arrakasta handiz irakasle lanei atxikirik bazegoela badakigu. Edozein modutan ere, hatsarri garrantzitsua dugu 1817. urteaz geroztikoan garatutakoa.

Herriko zenbaitzuek bultzaturik edo, urte hartan Hernanin eskola berri baten eraikitzeko baimena eskatu zion Gipuzkoako Batzar Nagusiei. Esan gabe

doa eskatutakoa onartua izan zela. Ez zegoen bakarrik, ordea, zeregin hauetan. Lanak Kaietano anaiaren eta Manuel Larrarte maisu eta organo-jolearen artean banatu ziren. Agustinek erdal gramatikak irakatsiko zituen: gaztelania, frantsesa eta latina, baita kristau doktrina ere. Bere anaia Kaietanok, berriz, matematikak eta geografia. Eta azkenik, Manuel Larrartek irakurtzen, idazten eta musika. Berebiziko arrakasta izan zuten, eta Gipuzkoatik ez ezik baita Nafarroatik ere etortzen zirenak ez omen ziren gutxi.

Irakaskuntzan Iturriagari sorrarazten zion kezka nagusia, ordea, euskara bera zen. Izutuari eginiko gutuneria mardoan irakur daitekeen bezala: «Orain dala saspit urte hume choaquin dempora iragotcen nubenean esagutu nuben cer eraqueria andia eguiten zan emengo escoletan erderas gaztiai iracurteen eracustearquin, izanic milla bider errasago eusqueraz icastea eta eracustea». Hori zela eta, 1830ean Arrasaten bildurik zeuden Batzar Nagusiei igorri salaketa batean Gipuzkoako irakaskuntzaren egoera saminko deskribatzen zuen Iturriagak. Erdararen aurka zuzenki jo gabe, euskararen irakasteko beharraz ohartarazi nahi izan zion batzarkideei.

Honerrek guztiak aski argi azal litzake lehenbiziko bi lanen nondik norakoak.




Izan ere, 1841ean *Arte de aprender la lengua castellana para el uso de las escuelas de las primeras letras de Guipúzcoa* 85 orrialdeko lanttoa ageriarazi baitzuen, eta

1842an, berriz, *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*. Biak Hernanin agertu ziren, bada: «No habiendo podido conseguir que Baroja, ocupado en la obra de la revolución francesa, se dedicase por mucho tiempo a la impresión de mis libritos para las escuelas de primeras letras, me he resuelto a hacer aquí mismo una pequeña prensa y a divertirme yo mismo en su publicación, desengañado de todo lo que depende de voluntad ajena».

Lehendabizikoaren izenburuaren azpian, aisa ikus daiteke Larramendik hernaniarren zuzen aitagoitasuna eta eredia —oroit bedi Larramendiren *El imposible vencido* gramatikak duen azpi-izenburua, hau da, *Arte de la lengua bascongada*—, Iturriagak *Izutuari esan zionez: «Llevo adelante mi gramática que tendrá por título 'Compendio fraseológico de la gramática del Padre Larramendi' o cosa semejante. De este modo se conseguirá más fácilmente la licencia de imprimirla y nosotros conseguiremos una equivalencia de la reimpresión del 'Imposible vencido'»*. Bigarrenaz esan daiteke aski argi dagoela Iturriagak ez zuela asmo literario, eta irakaskuntzara aiduru zegoen gogotik eta zeharo. Nolanahi ere, Bonaparteri egundoko laketu zitzaizkion itzulpenak, eta bigarren edizioa apailatu zuen, Londresen 1857an agerizena. Louis-Lucienen asmoak betetzera zetorren huraxe, ordea, ez eskolakoak Iturriagak nahi bezala, eta, horrenbestez, printzeak beste hiru euskalkietako aldaerak gehi frantses testuarekin atera zuen liburua, horretarako Duvoisin, Intxauspe eta Uriarteren lankidetzaz izan zuela, nork bederak zegokion hizkelgian naski. Harrezeroztik ere, edizioak ugari izan dira.

Patziku Perurena



Atoz atoz, ya bazoaz eta!

GREKERATIK DATOR onomatopeia, (*onoma* + *poieio*) eta *izena* + *egin* esan nahi omen du: zinezko hotsak hitzetaraztea. Gaur arte ez nuen etimologia honen berririk, eta horratx: liluratu egin nau. Gogoan dut behialako *Nafarroa Gaur* hartan nola egin zuen artikulua bat Aingeru Epaltzak euskal onomatopeien gaia pittin bat azalertzeko, eta Eduardok uste dut esaten zuela, «izugarritzko indar deskriptiboa» hitz onomatopeikoek euskararen. Izan ere, «halako zehaztasunez jotzen dute gogoaren zolan». Egia handia: *kraskatu, palasta, ziztaka, birbirreko (calambre), marmari, dunbuilo, kizkurtu, zarrata*...

Onomatopeiak bai: hotsaren irudia bizi bizirik gogora dakarten hitz xuhur eta xalo horiek. Ederragorik eta poetikoagorik ba ote? Zein bakan hitzegiten duten, ordea, filologoek hitz onomatopeikoez! Halabaina, esan liteke zinezko hizkuntzalarien apusturik haundienetakoa beharko luketela izan.

Orain hirulau mila urte, begitartetik *irrist* egiten zion barneko hertsadura hari *irri* deitu ote zion euskaldunak? Ez dakigu: hiru lau mila urte lehenago, barne hertsadurik apenas zerion poz hari *mara-mara* deituko zion agian. Baina, *irri karkaila* asmatu zuenerako esanen nuke, moralinaren kazkabar erauntsi dezentea ari zuela euskaldunaren gogoan. Ez da batere *far* egiteko kontua: euskarazko onomatopeien bilakaera ongi aztertzea, izan liteke oraindik sortu gabe dagoen zientziarik interesgarriena; zer dakigu, esate bateko, *dardara* sortu zuen hiztunen psikologiak?

Hitz onomatopeiko batean, edozein hitz kontzeptualetan baino jakinduria zehurragoa igoal akaso baitu gizonak. Hitz onomatopeiko batean,

ekintzaren materiala ere jaso egiten baitu kontaerak (hitzak, alegia: *kunkal*); hitz kontzeptual batek ordea, sortu ordutik galduta dizu material erreferente guzia. Nola esan: gaurgero *jainko* hitzak adieraz lezake edozein gauza, baina, *zaplazteko* batek ez du halako malgutasunik. Edo bai?

Sokratiko erretoriko guzientzako bazka gozo izanen da beti *jainko* hitza, eta *zaplaztekoa* berriz larreko belar klase lehorra. Izanez ere, ekintzaren sorburura bihurtzen baitu gure gogo *zaplazteko* hitzak, ahozkatu orduko. Eta erretoriko xuriak, ezin du eraman ekintzaren oihartzun zehatz horrenik, gogorregia iruditzen zaio. Horregatik esanen zuen behin, Benardok, hitz onomatopeikoak ez zitzaizkiola interesatzen, bere jarduna erretoriko hutsa delakotz.

Zer gertatzen da ordea, hitzak ekintzaren erreferentzia guziak galtzen dituenen? Hitz onomatopeiko guziak hitz kontzeptualen pareraino agortzen direnean? Hizkuntza horrek ez duela ia inolako partikulartasunik. Baldin *haizea* bezain abstraktua bada *firfira*, nor izan liteke gaur poeta hemen? Bere ekintzen sententzioak sorberitzeko indarrak gabe, nola gorde hizkuntza baten jario bizia?

Eta hizkuntza zaharren berezitasunaz hitzegitekoan, zergatik ez da xehero aztertzen alderdi onomatopeikoa? Hots huts, oihartzun huts edo *denbora huts* dirudien hitz horrek, gezurra badirudi ere, gertaeraren bi aldeak erakusten baititu: emalea eta hartzailea, zastal. Horregatik du, indar metaforikorik biziena: gertalekua zehatz jasotzen duelako, eta metafora betiere leku izaki.

Onomatopeiak, hizkuntzaren abismora galtzerakoan, itzulerarik gabeko abisoa ematen digu. «Atoz atoz, ya bazoaz eta!».

Ziria

• Motxorrosolo •

Urbano


Mugarik gabeko bizimodua eraman ondoren, Garazitik inoiz baino urrunago, Lizarran, Eugik eman duen azken bertsolaria. Egun ere, anitz du bizipozaz irakasteko Urbanok. Eguraldian kanbiamenduak oroimenaren kutxa zamatuko ote dion.

David Ilundain

ZINEMAGILEA

«Film laburra grabatzea latza da, denbora askoan zorretan zaudelako»

Nafarroan film laburrak grabatzea Madrilen egitea baino errazagoa ei da. Dena dela, han edo hemen, ez da batere erraza film labur bat grabatzea, prozesu erdian zorretan baita zuzendaria. David Ilundain iruindarrak, baina, lortu du.



● INAKI VERGARA

DAVID ILUNDAIN ZUZENDARI gazteak Ariben eta Auritzen grabatu du *El Vaivén* film laburra, abuztuaren 20tik 26ra.

■ **Zer moduzkoa izan da zure lehen esperientzia hau?**

Oso ongi atera da. Hagitz kontent nago. Dena gaizki ateratzeari beldur handia nion, baina zenbait momentutan disfrutatzea ere lortu dut.

■ **El Vaivén izena du filmak. Zeri buruz da?**

Arotz batek zabu bat egiten du seme-alabei oparitzeko, eta zabu hori protagonista bihurtzen da. Istorioaren ikuspuntua ematen digu, eraikitzen dutenetik desmuntatzen duten arte. Pertsonaien arteko harremanak ikusten uzten digu, familia nola aldatzen den, nola kostortzen diren seme-alabak. Ez da apaingarri soila, pertsonaia bada, eta misterio ttiki bat ere badago haren atzean.

■ **Nola sortu zitzaizun filma egiteko ideia?**

Habanan nengoen lehen ideia idatzi nuenean. Zerbait oparitzen denean izaten diren benetako intentzioak ziren ideia horren muina; ea oparia desinteresatua den edo harreman bat baldintzatzen duen. Ideia hori garatzen joan ginen eta, beti gertatzen den

gisara, ideiak bere bidea hartu zuen. Hantxe, Habanan, ideia bururatu eta idatzirik utzi nuen, baina beste gauza asko nituen esku artean. Serio idatzi, garatu eta landu hemen egin nuen. Horretan asko lagundu ninduen Carlos Mugiro Elizondoko batek. Kurioski, Habanan ezagutu nuen Carlos.

■ **Eta gero?**

«Ana Fernandez eta Ramon Barea aktoreek segurtasuna eta esperientzia eman didate. Hasi berria zarenean duda anitz duzu, eta badakizu horiek behar duzuna emanen dizutela. Erregistro aldaketa eskatu eta berehala egiten dizute»

Ikusi nuenean gidoia goiti beheiti bukatu zegoela, Paloma Martikorenarekin hitz egin nuen. Berak produkzio lana egin zuen. Proiektua Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Kultura Ministerioari aurkeztu genien. Biek aurrekontuaren zati ttiki bat eman ziguten. Gero Madrilgo enpresa baten bidez lortu genuen beste zerbait. Baita zenbait laguntza pribatuetatik ere. Eta nik hainbat lekutan egin nuen lan dirua lortzeko. Dirua lor-

tzearena da zatirik itsusiena. Aurtengo sanferminen ostean ekin genion filma egiteari: ekipamenduaren alogera, filmatzeko lekuak bilatu, akto-reak aurkitu, filmatu...

■ **Ana Fernandez eta Ramon Barea aktoreek parte hartu dute. Nola egin zenuen konbentzitzeko?**

Kontaktuak lortu, gidoia bidali eta kontatu nien zer nahi

duda anitz duzu, eta badakizu haiek behar duzuna emanen dizutela. Erraztasun handia dute. Erregistro aldaketa eskatu eta berehala egiten dizute.

■ **Eta zer moduz beste aktoreekin?**

Kontrakoa izan da. Haien atzetik egon behar izan dut. Haurrekin errazagoa da, jolas moduan planteatzen ahal duzulako. Baina 17 eta 18 urteko gazteei asko kostatu zaie, beldur direlako ez ote zaien ongi aterako. Lasai egoitea gehiago kostatzen zaie.

■ **Film labur batekin dirua galtzen da?**

Badago momentu bat, oraingoa, zorretan zaudena. Lagunek eta familiakoe laguntzen dizute. Eta dirua gutinaka berreskuratzen joaten zara, diru laguntza guztia ematen dizutenean. Gainera, hemendik urtebetara, Espainiako Kultura Ministerioak filmak baloratuko ditu eta, horren arabera, aurrekontuko zati bat ordainduko du. Azken ikuskapen horretan lortzen da gastaturikoa berreskuratzea. Baina dirurik ez da irabazten. Prozesua latza da, zorretan zaudelako denbora askoan.

■ **Erraza da Nafarroan film labur bat grabatzea?**

soslaia

David Ilundain Iruñean jaio zen, duela 25 urte. Gurutze Plazako institututik pasatu eta gero, Nafarroako Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioa egin zuen. Ondoren, Habanako Zinema Eskolan urtebete eman zuen, eta handik bueltan, *El Vaivén* film laburra grabatu du.

Film laburrak eskatzen zuen dirua lortzeko hainbat lanetan ibili da Ilundain: pare bat film luzetan laguntzaile moduan, sanferminetan taberna batean, lantegi batean... *El Vaivén* muntatzen bukatuikoan, zinema munduan lan egiten saiatuko da Ilundain. «Ezagutzen nauen jendearen deiaren zain egonen naiz», dio. «Hori baita hemen lana lortzeko modu bakarra».

El Vaivén azarora aldera Golem zinematokietan estreinatzen saiatuko da Ilundain. «Eta gero ahalik eta festival gehienetara bidaltzen saiatuko gara». «Baina hobe da sarietako diruan ez pentsatzea. Behin gastuak ordainduz gero, sariren bat irabazten baldin bada, filma egin duten guzien artean banatu beharko da».

Bai, Madrilen lan egiten duen hemengo jendeak esan dit Nafarroan Madrilen baino errazagoa dela film labur bat egitea. Mundu honetan fabore anitz eskatu behar duzu, dela dekoraziorako zura lortzeko, dela etxe baten aitzinean filmatzeko. Hemengo jendea abegitsuagoa da, eta gus-tura uzten dizu bere lursaila nahi duzuna egiteko. Nahiz eta gero, astebete pasatu eta gero, alde egin dezazun irrikā dauden.

→ Asier Azpilikueta

MOSKI JATOR ERTAROAN

EUROPA EUROPA!



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Irailerako...

ikasturtea hastear dago. Hemendik egun eskasera eskolak haurrez beteko dira; beren karpeta, liburu-zorro eta errotuladore dotoreei, berri-berri diren seinale, usain berezia dariela. Nafarroako parlamentarioek, ordea, ez dute egoitza berririk izanen oporren ondotik. Aitzineko Auzitegi Jauregiko lanen martxa ikusita, pentsatzekoa da datorren irailean ere egoitza berririk gabe jarraituko dutela gure foru ordezkariak.

Hainbat aburu mahaigaineratu ziren Entzutegi zaharraren etorkizunaren inguruan. Alde batetik udal arkitektoek eraikina birrintzea proposatu zuten. Hala, Sarasate pasealekutik ikuspegi irekiagoa lortzen baita. Bestalde, batzuk eraikinaren antzinakotasuna eta izan dezakeen balio artistikoa aztertzen hasi eta horren aurka azaldu ziren. Bi jarre-
rak hurbildu nahian, baten batek, puzlea balitz bezala, harriz harri desmuntatu eta gobernu militarren aurrean berrekitzearen alde egin zuen; erabaki salomonikoa.

Halako batean, aspaldiko aferari behin betiko konponbidea erabakita utzirik, Nafarroako Parlamentuak bere egoitza hantxe finkatzea erabaki zuen. Baldintza kaskarretan zegoenez, zaharberritze lanei ekin zieten. Jauregiaren planta irregularra baino irregularragoa da. Barrualdea hutsik utzi zuten, eta haren pareten zabalera kapritxosoa dela eta, gertatu beharrekoa gertatu da: hego aldearen zati batek behera egin zuen. Kanoikada bat eman izan balio bezala, hutsune galanta utzi diote atzeko fatxadan. Egia esan, nahikoa estetikoak gelditzen da, eta eskultore modernoek maisulanetan bezala antiespazioaren ikerketa egin daiteke horren inguruan.

Hau gutxi balitz bezala, aldamenen gelditzen den orube zabalean auditoriuma eraikitzen hasi ziren. Sekulako zuloa egin izanak ziurrenik mesede gutxi egingen zion eraikin zaharrari.

Obrak bertan behera utzi dituzte, eta oraingoz ez dute aurrera egiten. Batek daki enpresa eraikitzaileek baino ez duten erantzukizuna. Zulo ederra gelditu da begien bistan, baina egonen da agerian geldituko ez den beste zuloren bat. Eta horri bai usain berezia dariola.

gure aukerak

MUSIKA

- **Arronitz:** Gaur, 23:00etan, Berriozarko Marea taldeak herriko plazan joko du.
- **Mutiloabeiti:** Numidia talde multietnikoak kontzertua eskainiko du bihar, 22:00etan, Mutiloa plazan.
- **Zizur Nagusia:** Besten aurreko asteko ekitaldien baitan, asteartean, kirol erakustaldiaren ondoren, 21:00etan Roslis eta Dikers taldeek rock kontzertua emanen dute Erreniega parkean.

ANTZERKIA

- **Jauntsarats:** Gaur, 12:00etan, Txirristra taldeak *Zergatik, zergatik, zergatik* antzezlanaren taularatu-ko du eskoletan.
- **Bidaurreta:** Igandean, 18:30ean, Txalozirkus antzezlanaren eskainiko du Zirkoko Ttipia taldeak herriko elkartearen.
- **Saldias:** Igandean TEN Pimpilinpauza taldeak *Zapatat hondaturik* antzerki ikuskizuna emanen du frontoian.

ERAKUSKETAK

- **Ziga:** Jesus Montes margo erakusketa dago ikusgai Zigaurre auzoko Karakotxean, igandea arte, 12:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara.
- **Elizondo:** Igandea arte Jaime Urrutia kaleko 23 zenbakian Tomas Sobrinoren pintura lanak dira. Goizetan, 11:00etatik 13:00ak arte, eta arratsaldeetan, 19:00etatik 21:00etara.
- **Oieregi:** Bertizko jaurreirian

Antzinako bizimoduaren irudiak erakusketa ikus daiteke irailaren 3a arte, 10:00etatik 13:30era, eta 16:00etatik 19:30era.

- **Burlata:** Gaur 20:00etan, udaletxe-ko kultur aretoan, Mario Peñalba margolariaren erakusketa zabalduko dute. Irailaren 10a arte egonen da zabalik.
- **Elizondo:** Ana Maria Marinen olio-pinturak eta akuarelak ikusgai irailaren 10a arte Elizondoko Bergarenean, 11:30etik 13:30era, eta arratsaldeetan 21:00ak arte.

IKASTAROKAK

- **Erriberri:** Gaur, Nafarroako Ardoaren Kofradiako egoitzan (Rúa Mayor, 4) dastaketa ikastaroa egingen dute 20:00etan. Izena emateko deitu 948-210347 telefonora.
- **Iruñea:** Nafarroako AEK-k euskara irakasleak prestatzeko ikastaroa antolatu du irailerako. Ikastaroan parte hartzeko deitu 948-220213 telefonora.
- **Barañain:** IKAKo Sahats eskualtegiak irailerako udako ikastaroak antolatu ditu.

Ikastaroek lau aste iraungo dute, ordutegi eta urrats guzietan. Gaur da izena emateko azken eguna: 948-188325 telefonan.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Bihar, ohi denez, Arkakuso Onen Merkatu Tikia egingen dute, goizeko hamarretatik aurrera, San Jose plazan. Bertan antigoaleko eta bigarren eskuko gauzak saldu edo trukatu ahal dira.

• INAKI VERGARA



Akabo

Tira, hiru aste falta diren arren, bukatu da uda. Argazkiko irudia, abuztuko edozein egunetan egina, bestelakoa izanen da hemendik gutira. Gaur oporretatik itzuliko dira gehienak. Astelehenean izanen dute buelta azkenek. Eta laster haurrak eskolara, eta langileak lantegietara, eta erosleak hipermerkatuetara, eta zaleak harmailletara. Abuztuan lan egiteko zortea izan dugunok autoa Intendentziako aparkalekuan uzteko batera arazorik ez dugu izan. Gizajoak gu. Eta gizajoa Intendentziako aparkalekua. Apika irudi hau izanen da aparkalekua ia hutsik ikusteko azken aukera. Laster autoak etorriko baitira; eta horren ondotik, Barcinaren kontsumo-hiriko totema, Corte Inglesa, alegia.